

26. artikulua

1. Borondatezko eszedentzia aitortzea bidezkoa izanen da, funtzionarioak hala eskatuta, ondoko kasuetan:

a) Zerbitzuak ematen hasten bada beste administrazio publiko batean edo langilearena ez den beste administrazio baten menpekoa den eta berezko nortasun juridikoa duen entitate batean, bai eta jabetza hartzeko unean beste administrazio publikoa batean zerbitzuak ematen ari baldin bada izaera finkoarekin.

Halaber, Administrazio Publiko beraren baitan, maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat, unitate organikoko burutza edo zuzendaritza direnak izan ezik, eskuratzen duen funtzionarioak bietako bat aukeratu beharko du, eta beste lanpostuan borondatezkoa eszedentzian deklaratzeko eskatu dezake.

b) Alderdi politiko edo sindikatu edo lanbide erakundeetan zuzendaritza karguak betetzera iragatean, funtzio publikoan aritzeko bateraezinak badira.

c) Funtzionarioaren interes partikularrengatik. Jatorrizko lanpostua hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bidea ematen badute eta interesatuak egiaztatzen baldin badu eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo horren antzeko lan egoera batean aritu dela.

2. Borondatezko eszedentzia, beti ere, epe mugagabetzat eman dela usteko da.

3. Askitsu justifikaturiko beharren bat salbu, borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek ezin izanen dute iharduneko zerbitzuan berriro sartzerik eskatu, borondatezko eszedentzian urte bat eman arte. Berriz sartzea erabakirik, hilabeteke epea izanen da. Hori egiten ez duen funtzionarioak, izaera hori galduko du.

4. Borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek hartutako maila, gradu eta antzinasuna gordeko dute baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko, ezta ez zaie inolako ondorioetarako egoera horretan iragandako denbora kontutan hartuko ere.

27. artikulua

1. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia onar daiteke, hiru urterako gehienez subjektu eragile bakoitzeko, honelako kausa hauek justifikatuz gero:

a) Seme-alaba bakoitza zaintzeko, naturalak zein adoptatuak, eta adoptatu aurreko harrera-fasean edo harrera iraunkorrean daudenak. Epea haurra jaiotzen denetik edo, bestela, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuko da.

b) Langilearen kargura dagoen odol edo ezkontza bidezko ahaideren bat zaintzeko, bigarren gradu artekoa -hori barne-, baldin eta adinagatik edo istripu edo eritasun baten ondorioz bere kasa bizitzeko gauza ez bada eta lan ordaindurik egiten ez badu.

2. Kasu guztietan, eszedentzia berezia emateko, funtzionarioak deklaratu beharko du bitartean ez duela beste jarduera profesionalik edo lanik egin behar.

3. Eszedentzia berezian dauden langileek jatorrizko lanpostua gordetzeko eskubidea izanen dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sorraraziko. Antzinasunaren ondorioetarako, egoera horretan dirauen denbora guztia kontatuko zaio, eta eskubide pasiboen ondorioetarako, langilea atxikita dagoen aurreikuspen sozialeko araubidearen araudian xedatutakoari lotuko zaio.

4. Eszedentzia berezia haren subjektu eragileari dagokion gehieneko eperako emanen da. Gehieneko epea bukatuta, interesdunek jarduneko zerbitzura itzuli beharko dute eszedentzia bukatu eta biharamunean, nork bere jatorrizko lanpostura.

5. Emandako eszedentzia berezia bukatu ez bada ere, interesdunek noiznahi eskatzen ahalko dute jarduneko zerbitzura itzultzeko. Itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean gauzatu behar da. Hala egin ezean, langileak galdu egingen du funtzionario izaera.

6. Aurreko idatz-zatian aurreikusita dagoen alde aurreko itzultzea gertatzen bada, funtzionarioek beste eszedentzia berezi bat eskatzen ahalko dute subjektu eragile bera dela kausa, baina behin bakarrik, gehieneko epea bukatu arte gelditzen zaien denbora bete arte. Horrelakoetan, sei hilabete utzi beharko dira jarduneko zerbitzura itzultzen denetik hurrengo eszedentzialdia hasi arte.